

## HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO LEHEN MAHAI NEGOZIATZAILEA

2019-2020

Irailaren 11ean 2019-2020 ikasturteko lehenengo Mahai Negoziatzailea burutu zen Lakuan. Gai gehienak kudeaketa alorreko lankideen egoeraren ingurukoak izan arren, hezitzaileentzako interesgarriak diren hainbat gai ere landu ziren. Ondorengo lerroetan bileran landutako gaien inguruko nondik norakoak laburtuko dizkizuegu.

Hasteko, enpresari gure haserrea eta ezinegona adierazi genion iraila hasieran sortutako egoeren inguruan. Izan ere, uztailean mugimendurik egongo ez zela adierazi ziguten arren, errealitatea bestelakoa izan da. Hezitzaile asko mugitu ditu enpresak eta, gainera, irizpide garbirik gabe. Egoera hau ezin dugu gehiago onartu, enpresak **gardentasun falta** izugarria erakutsi baitu beste behin ere. Azken finean, hezitzaileei inposatu egiten digute nora mugitu, nola, noiz...

Horretaz gain, **LEP berriak** (kontratu hobekuntzak) ematerako orduan enpresak berdin jokatu du, honen inguruko informaziorik bidali gabe (zeintzuk eman diren adierazi gabe, zerrendaren hurrenkera zein izan den jakinarazi gabe, hezitzaileei aukera ezberdinak eman gabe, etab.).

Bilerarekin jarraituz, gure **soldataren % 0,25eko igoera** izan genuen hizpide. Sindikatuok ez dugu zenbateko hori negoziatzeko aukerarik, eta **STEILASek** igoera hori (eta uztaileko eta abuztuko atzerapenak) irailleko nominan gauzatzea eskatu zion enpresari.

Gainontzeko langile publikoek **Itzarrin\*** ere igoera jasoko dutela jakinik, guk kopuru hori gure nominetan islatzea eskatu genien enpresari eta Eusko Jaurlearitzari berriz ere. Hala ere, aukera hori berriz ukatu ziguten. (\**Itzarri: Borodatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea da (BGAE/EPVS). Euskadiko Administrazio Orokor eta Instituzionaleko langileen aurreikuspen plana kudeatzen du*).

Ikasturte hasieran Haurreskolak Partzuergoko **langile askok enpresa utzi** eta Hezkuntza Ordezkaritzatik jasotako lan eskaintzak onartu dituzte. Honen harira, gure **Lan Hitzarmenean jasota ez datorren** eszedentzia mota bati buruz galdetu genion, ikasturte hasieran emandako mugimendu ezberdinak ikusi eta gero. **“Bateraezintasunagatik eszedentzia”** beste administrazio publiko baten lanpostua lortuz gero **langile finkoek soilik** eskatu dezaketen eszedentzia da, eta egun batetik bestera gauzatu daiteke. Eszedentzia mota honek ez dauka epe mugarik, eta langileak bere **haurreskolarekiko atxikipena galduko du** eskatuz gero. Eszedentzia eskatzearen arrazoia amaitu eta hilabeteko epea izango du langileak berriz lanera inkorporatzea eskatzeko. Eszedentzia hau eskatzeko 01PO eskaera orria eta administrazioaren izendapena bidali beharko dira Haurreskolak Partzuergora.

**Gurasotasunaren** inguruan sortu diren zalantzak direla eta, oraindik egoera berria arautuko duen **agindurik ez egotea lotsagarria** dela esan behar dugu. Izan ere, irailaren 1etik aurrera indarrean dagoen eskubidea da. Hau horrela izanda, **STEILASek** honakoa eskatu zion enpresari: guraso izan diren pertsonen **aukera ematea beraiek nahi bezala kudeatzeko** dagozkien asteak.

**Kudeaketa alorreko lankideei dagokienean**, kolektibo honen lanpostuen zerrenda, horien bete beharrak, ordezkatzeko egoerak, barne-sustapena eta ordezkoen araudia aztertu genituen. Enpresak planteamendu berria aurkeztu zигun sindikatuoi: planifikazio teknikari 2 mantenduko ditu, eta Planifikazio arduraduna EPE deialdian eskainiko du. **STEILAS** izan zen hizpide izan genituen gaien **ekarpenak egin zien sindikatu bakarra**, eta enpresak aztertuko zituela esan zigun. Kudeaketa alorreko lankideen **mobilizazioen ondorioz** hasi ginen dokumentu guzti hauek lantzen, eta oraindik ere hauek fintzen ari gara.

Lerro hauen bitartez kudeaketa alorreko lankideei gure babesa adierazi nahi diegu berriz, beraien **lan baldintzak hobetzeko egiten ari diren lan guztia eta esfortzua izugarria baita**. Gure partetik, ahalik eta lan baldintza onenak lortzeko ahaleginetan ez dugula etsiko adierazi nahiko genuke.

Bilerarekin jarraituz, Haurreskolak Partzuergoan **Ordezlagunea** ezartzeko nahia adierazi ziguten bertan. Guk prozesua ez atzeratzea eskatu genien eta, batez ere, ez izatea zerbitzu hori aplikatzen azkenak. **Web guneak eguneratzeko duen beharra** adierazi genion berriz ere enpresari, eta bertan eskegita dauden dokumentuak berrikusi eta eguneratzeko eskatu genion era berean.

Bukatzeko, enpresari guretzat **oinarri-oinarrizkoak diren gaiak oraindik negoziatzeke** ditugula gogorarazi genion:

- ✓ Pertsonal kudeaketako langileen EPE deialdia.
- ✓ Hezitzaileen beharren azterketa eta Lan eskaintza Publikoaren deialdia.
- ✓ Lan Hitzarmeneko 47. artikulua: borondatezko eszedentzian 2 urteko lanpostuen erreserba izatea, kontratu finkoa zein LEP arteko kontratua duten langileentzat.
- ✓ Koordinazio lanetarako dedikazio orduak.
- ✓ Lan Hitzarmena osotasunean negoziatzea.
- ✓ Prest Gara eta Irale ikastaroetan parte-hartzea erraztea eta bultzatzea.
- ✓ Zahartze plan propioa diseinatu.

**STEILAS**en lanean jarraituko dugu Haurreskolak Partzuergoko langile guztion lan baldintzen alde!

